

AEB ETA IMMIGRAZIO POLITIKAK

Eskolatik irtetea arriskutsua denean, ekarri antzerkia eskolara

Washingtongo erdigunean, ia mende erdiko eskarmentua dauka GALA elkarteak. Espainieraz, Artista Latinoamerikarren Elkartearen siglak dira. Adams Morgan auzoan hasi ziren, hiriko artista-auzunean, eta handik, gertuko beste antzoki batzuetan emanaldiak egiten eman zituzten lehen hamarkadak. Duela hogeitun urte, Tivoli zinema izandakoa eskuratu zuten. Bere garaian, 1924tik aurrera, hiriko zinemarik dotoreenetakoa izan zen, baina 1976an itxi ostean, hala eman zuen mende laurden. Egun, espainierazko kulturaren erreferentzia garrantzitsuenetakoa da AEBetako hiriburuan. Gaurtik aurrera, esaterako, "Erase una vez... ¡Y dos son tres!" (Bazen behin... eta bi hiru dira!) estreinatuko dute, ingelesez eta espainolez ele bitan, eta Antilletara begira: Dominikar Errepublikako ondare europar, indigena eta afrikarra lantzen dituen antzezlanak da.

Orain artean, Espainiako literaturaren urrezko mendean kokatu ohi den Lope de Vegaren "Fuenteovejuna" taularatu dute. Hainbat herrialdetako aktoreek XVII. mendeko testua gaur egungo estetikarekin lotu dute, DJ batek ere lagunduta. Gaia ezaguna da: herria sufrimendu betean daukan komendadore feudal anker bat (Iker Lastra aktore euskaldunak antzeztuta), eta herritarrek elkartuta tiraniari aurre egiteko daukaten gaitasuna. 1476ko Andaluzian kokatutako antzezlan baten gaiak bete-betean bat egiten du XXI. mendeko Estatu Batuetako egungo errealitatearekin.

GIZA ESKUBIDEAK / Urtzi URRUTIKOETXEA

AEBetako gobernu berriaren politikak nabarmen aldatu dute herritar askoren bizitza. Immigrazioaren aurkako operazioek psikosi egoera batera eraman dute jende asko. Washingtongo eskola batek, esaterako, eskolako irteerak bertan behera utzi ditu. Antzezlan bat ikusi ezin zutela-eta, bertako aktoreak joan dira eskolara.

Cesar Cagigos DCI institutu-ko irakasleak Gala antzokira joateko asmoa zeukan, ia ehun ikaslerekin. Latinoamerikar jatorria daukate horietako batzuek, beste batzuek eskolan ikasi dute espainieraz, Washingtonen eta beste hiri batzuetan oso ohikoak diren murgiltze-ereduetan edo eskola elebidunetan. Kontua zen espainiera maila altua zeukaten ikasleak zirela, literatur lan klasiko batez gozatzeko.

«Gure asmoa 'Fuenteovejuna' antzezlana ikustera joatea zen. Baina herrialdeko egoera politikoa ikusita, gure zuzendariak erabaki zuen irteerak eta txangoak bertan behera uztea, horrela segurutzat jotzen ez zuten egoerarik ez izateko, gure ikastetxetik kanpo denez ari-keta hori».

BELDURRA

Gala antzokitik jakinarazi zieten beraiek ere bazituztela se-

gurtasun neurriak, ondo daki-te komunitate latinoamerikar-rrari nola eragin dioten Donald Trumpen erabakietako batzuek. «Baina zuhurrak izatea erabaki genuen, ikasleak haraino ez bidaltzea. Antzokia segurua izan arren, kaletik edo garraio publiko ez joatea erabaki genuen, bidean zer gerta zitekeen beldur ginen, immigrazioarekin susto txarrik ez izateko», azaldu du Orielena Lopez Ayllonek, DCI ikastetxe-ko espainierazko atalaren arduradunak.

Ez da institutuaren erabakia soilik, familia asko ere beldur dira. «Bai, noski, gure komunitateari eragin dio», dio Lopez Ayllonek, berak ere kubatar jatorria baitauka. «Washingtonen agian ez da hainbeste nabari, baina inguruko leku askotan bai, eta guraso asko kezkatuta daude. Tira, gurasoak, eta ikasleak ere bai, nagusiak dira, badakite zer ari

Washingtongo Cesar Cagigos institutuko ikasleak «Fuenteovejuna» antzezlaren inguruko azalpenak jasotzen. U. URRUTIKOETXEA



den gertatzen, eta esan digute beldur direla».

Txango interesgarria izanda ere, immigrazio-agenteak ego- teko beldurra handiagoa da. «Eskolan bertan ere bilera egin genuen, ea zein aukera genuen aztertzeko, immigra- zioa eskolan agertuz gero. Ikasle eta gurasoak kontziente dira eta batzuek beldurra ere badute, batez ere eskolatik ir- tenez gero».

Egoerak, ezinbestean, zertxo- bait baretzera egin badu ere, «ikasle batzuek etortzeari utzi zioten lehen asteetan. Polizia- operazioen berri ageri zen sare sozialetan etengabe, eta kezka eta beldur handia zegoen. Ba- tzuk azterketetara ere ez ziren etorri, eta gurasoek ere ez etor- tzeko esan zieten». Egun batez, protesta eta indar-erakusle gisa, «etorkinik gabeko» protesta- egun bat ere egin zuten, herrial- deak zenbat galduko lukeen agerian uzteko.

AKTOREAK ESKOLAN

Ikasleak oraingoz txangoetara eramán ezinda, antzokira dei- tzea erabaki zuten irakasleek. Bazekiten ezingo zutela taula- ratzeko zerabilten tresneria guztia ekarri, baina antzezlee- tako batzuk ikasleekin egotera etorritz gero, arantza hori ate- ratzeko itxaropena zeukaten. «Pena dela esan genuen, are gehiago antzezlanaren bera- ren gaiarekin, injustiziaren aurka. Ikusten genuen, gaine- ra, azkenean beti kultura irte- ten dela galtzaile. Eta pentsatu genuen, zergatik ez esan ea animatuko lirakeen etortze- ra? Hasieran esan ziguten ezin zutela, eta aipatu genien egoe- ra, ea egokitu zitezkeen. Gero, taldean hitz egin ostean, posi- ble zuten batzuek etortzea era- baki dute. Guretzat ere onura- garria da, egin kontu ikasle

«Gure asmoa ‘Fuenteovejuna’ antzezlan- a ikustera joatea zen. Baina herrialdeko egoera politikoa ikusita, gure zuzendariak erabaki- zuen irteerak bertan behera uztea»

Migratzaileak kezkatuta daude. Familia askok seme-alabak ez dituzte eskolara bidaltzen, Trumpen immigrazio politikekin zer gerta ere. Eskolatik ere neurriak hartu dituzte

hauetako batzuentzat gaztela- nia eskolako hizkuntza baino ez dela, eta beste batzuek agian etxean egiten dute, bai- na ez dute XVII. mendeko lite- raturaz gozatzerik izan. Hizke- ra zail samarra ere badenez, aktoreak bertan egotea eta za- lantzak argitzea oso interesga- rria da».

«Gure lankideetako batek proposatu zuen, eta esan ge- nuen, ‘ikasleak ezin badira etorri, eramán dezagun an- tzerkia eskolara’, esan du Cat-

herine Nuñezek, Pascualaren rola egiten duten aktore kuba- tarrak. Luis Obed puertorrica- rra (Mengo, antzezlanean) bat dator. «Catherineri esaten nion egiten dugun gauzarik garrantzitsuenetakoa dela hau, antzezlan a eta gaia hain esanguratsua izanik gaur egun ere, honaino ekartzea, ikasleengana. Orain forma- tzen ari diren jendea dira, eta obrak dituen ideia horiek za- baltzea, erakustea, eztabaida- tzea oso positiboa dela uste dut. Oso hunkituta nago auke- ra honekin».

«Niri iruditzen zait astakeria bat dela gertatzen ari dena, ez- tabaida politikoetan sartu ga- be. Hondamendia da, guztiz onartezina, gurasoak seme- alabengandik bereiztea», dio Iker Lastrak.

Aktore bilbotarrarentzat, goizetan ikastetxeekin egiten dituzten *matinée*-ak taulara- tze atseginetakoak dira, «hiru


eta lau ikastetxe etortzen dira, oso giro ona egoten da, galde- ra asko eta ikusmin handia dauzkate». Ameriketako Esta- tu Batuetan bereziki, baina al- de guztietan dagoen «mundu materialistan», artea eta an- tzezpena aldarrikatu ditu, egoera konplikatu hauetan ba- tez ere. Transmisioan dagoen garrantzia eta arteak sor deza- keen inpaktua aipatu ditu. Madrilen bizi da egun Lastra, eta AEBetan bizpahiru hilabe- teko egonaldiak egiten ditu.

TIRANIARI AURRE

Giroa hotza da hasieran. Nera- beak publiko zaila izan litezke; onenean onenak, eta hotzean hotzenak ere bai. Heather Mc- Kay GALAko Hezkuntza ardu- radunak antzezlanaren koka- pen historikoa egin die, eta zer -nola muntatu duten azaldu die ikasleei. Egun berezia da beretzat ere. «Hona etortzeko ideia sortutakoan entusiasmo

Aktoreak eta ikasleak elkarrekin, antzezlanaren zehaztasunak lan- tzen.
U. URRUTIKOETXEA





Luis Obed eta Catherine Nuñez aktoreak bertaratu ziren eskolara. U. URRUTIKOETXEA

handia egon zen, bai aktoreen aldetik bai eskolaren aldetik ere, aukera guztiak eman dizkigute. Gu ere oso pozik gaude, ohorea da uneotan hona etorri eta ikasleekin partekatzea. Uneotan garrantzitsua da arteak bihotza izatea, ez mezua soilik. Uste dugu badaukagula mezu garrantzitsu bat emateko, baina erakutsi nahi diegu baita ere arteak badakiela erantzuten zailtasun uneetan». McKay ingelesera itzuli du «Fuenteovejuna».

Antzezpenean, aktoreak etengabe daude taula gainean, honela azaldu diete: «Beti gaude eszenan, batzuetan hizketan eta lehen planoan, eta beste batzuetan atzeratuago, baina gertatzen ari denaren lekuko gara». Ez da hutsala hautua: injustizien aurrean egin daitekeenaren eztabaida mahai gainean jarri dute.

Obrako tarte batzuetan, herri-tarrak hizketan ari dira; bes-teetan, atzean, ezer egin gabe, gertatzen dena ikusten, eta geldirik, oso berandu den arte.

Ingeleseko hitz-jokoa egin dute, «play» (antzezlan) jolas-tea ere badelako, eta antzezteko lekua jolastokia ere izan litekeelako («playground»). Catherine Nuñezek edalontziaren metafora darabil: «Ikusten dituzu gauzak eta agian ez zara oso aktiboa, niri

Luis Obed aktorea: «Egin dugun gauzarik garrantzitsuenetakoa da hau, antzezlan eta gaia hain esanguratsua izanik gaur egun ere, honaino ekartzea»

Iker Lastra aktore bilbotarrak ere parte hartzen du antzezlanean. «Niri iruditzen zait astakeria bat dela gertatzen ari dena. Onartezina da gurasoak seme-alabengandik bereiztea»

ez dit eragiten, baina halako batean zure institutuari dago-kio, eta gainera taula gainean banago, nahitaez ikusi behar dut, edalontziak tanta batekin gainez egiten duen arte». Aktore bezala ere, «orain herri-tar, gero soldadu, pertsonaie-tan aldaketa daukazu». Argien jokoa azaltzen diete: gorria beroa, odola da, eta urdina ura, bizitza, baina nahastu egiten dira, ura odolez zikintzen da. «Historiako une ba-koitzean dago erabaki hori: non kokatuko naiz gatazka honetan, tiranoaren ala auzo-ko emakume gazteen ondoan, gerrak jarraitzearen alde egin-go dut ala ez», erantsi du.

«Baina egun batean ez da jauntxorik egonen, eta Fuenteo-vejunaren deiak egingo du oihartzun», esaldiarekin, haus-nartzerara animatu ditu ikasleak, bakoitzak beretik ekar dezala. «Beti interesatzen zait elkartru-

kea, eta oso gustuko ditut fun-tzioen osteko kolokioak, ikus-leen ikuspuntua ezagutzea, are gehiago ikasleekin. Lana hona ekartzea eta solasaldia izatea haiekin oparia dela uste dut», dio Nuñezek.

Ezin bestela izan, antzezte-ra nor animatuko den galdetu dute. Neska batek berehala erantzun du. Mutilak uzku-rrago daude. Erdi behartuta atera dute gaztetxo bat. Bi ak-toreekin batera, gidoiak es-kuetan, gazteen arteko sola-saldia antzeztu dute. Hizkuntza antigoalekoa da, baina solasa edozein unetan gerta litekeena da, maitasuna gertatzeko aukeraz, maitatzea posible den, pasioaz, harre-maneez mintzo dira, bertsoz, segundo batez hausnartzea eskatzen duten testuetan.

Segidan, elkarriketa inter-esgarria sortu da, antzerki-az oro har, eta nerabezaroaz, egu-neroko arazoez, maitasunaz, noski. Baina baita obrak sako-nean lantzen duenaz ere, tira-nia, zapalkuntza, bidegabeke-ria, herriak batu beharra edo indarkeria erabiltzea.

Eta azken galdera: zer egin bidegabekerien aurrean? Ko-mendadorearen gaiztakeriak gaiztakeria, azkenean, erruki eskatu arren hil egiten dutela gogorarazten du ikasle batek. Beste batek dio gaia konplika-tua dela, baina injustizien au-rrean matxinatzeko eskubidea dagoela dio, indarkeria gustu-ko izan ez arren.

Heather McCayk antzokira etortzera gonbidatu ditu ikas-leak, eskolatik ezin bada, gura-soekin animatu daitezela. Sa-rarrerak opari emango dizkietela esan diete ikasleei. Mundua artega dabilen sa-soian, aldi baterako irteteko parada ederra izan da. Hurren-go, antzokian bertan.